



SORALUZE BIZI SORALUZE IZAN

SORALUZEKO ONDARE ETA HISTORIAREN TRANSMISORAKO I.UNITATE DIDAKTIKOA SORTZEKO BEKA

OINARRIAK.

1- AZALPENA

Soraluzeko Udalak "Herrixak Hezi" Hezkuntza Proiektuaren baitan kokatzen den Sorluze Bizi Sorluze Izan egitasmoa aurrera eramateko Beka eskaintzea erabaki du. Aipatu egitasmoaren helburua Sorluze historia eta ondarearen transmisioan laguntzeko unitate didaktikoak eta gida pedagogikoak sortzea da.

Ikas-maila bakoitzerako unitate eta gida bana egiteko asmoa badago ere, 2017an, lehenengoa egitetik hasiko da. Lehen Hezkuntzako 4.mailarako unitate didaktikoa eta gida pedagogikoa sortzea da Beka honen xedea, eta jorratuko duen gaia honakoa da: Deba Ibaia. Herritar ugarik informazio baliagarria jaso dute gaiaren inguruan eta orain eduki hori ikasgeletara eramateko tresna baliagarria sortzea da asmoa.

2- ESKATZAILEAK

Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, proiektuaren zuzendari-arduradun bat izendatu beharko da ordezkari izan dadin.

3- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Eskatzailearen edo eskatzaileen *curriculum-a(k)*

Lana egiteko erabiliko den metodologia, kronograma eta baliabideak (gutxienez) jasoko dituen txostena. Gehienez 5 orri.

Nortasun Agiriaren fotokopia

"HEZKUNTZA PROIEKTUA" jarriko duen kartazal itxi batean entregatu beharko dira agiri guztiak Sorluze Udaltxeko harreran (astelehenetik ostiralera 09:00-14:00)

Helbidea: Santa Ana, 1. 20590 – SORALUZE

4- EPEAK

Dokumentuak aurkezteko azken eguna: Apirilak 20

Ebazpena: Maiatzaren 5ean egingo da, Sorluze Udalaren webgunearen bidez. (www.soraluze.eus)

Bekaren iraupena: Ebazpen egunetik kontatzen hasita 6 hilabeteko epean lana bukatuta egon beharko da.



5- ORDAINKETA

Zenbatekoa: 3000€

Ordainketa honela egingo da: uztailen zenbatekoaren erdia ordainduko da, eta lana bukatzean gainerakoa.

6- HIZKUNTZA

Lana (unitate didaktikoa zein gida pedagogikoa) euskaraz egin beharko da.

7- ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Beka hau Sorluzeo Gobernu Batzordeak adjudikatuko du, Ebaluaketa Batzordearen proposamena jaso ondoren.

Ebaluaketa Batzordearen osaketa Sorluzeo Udalak erabakiko du. Dena dela, Ebaluaketa Batzordea gaiaren inguruko adituek osatuko dute, besteak beste.

Honako alderdi hauek ebaluatuko dira aukeraketarako irizpide nagusizat:

- Eskatzailearen curriculum.
- Aurkeztutako txostena.

Eskatzaileek gutxieneko baldintzak bete ezean, Ebaluaketa Batzordeak Beka indargabetu dezake. Eskatzaileek Beka eskatze hutsagatik, Ebaluaketa batzordearen ebazpenaren aurkako edonolako egintza judizial edo extrajudizial uko egiten diote.

8- JARRAIPENA

Hezkuntza Proiektuaren koordinatzaileak burutuko du lanaren jarraipena, halaber, bekadunari erraztasunik handienak eskainiko dizkio haren esku dauden kudeaketa lanetan.

9- JABETZA

Lanaren jabetza Sorluzeo Udalarena izango da eta hark erabakiko du zein lizentziapean argitaratuko duen lana, hala ere, beti egilea zein den adieraziko da.

10- BETEBEHARRAK

Lana burutzeko orduan, aurretik, Hezkuntza Proiektuan zehaztuak izan diren irizpideak jarraitu beharko dira.

Hiru hilabeteko epean lanaren garapenaren inguruko txostena aurkeztuko da.

Lana euskarri informatikoan entregatuko da.